

# GAZTE JATOR BAT

PELLO ARTETXE «URDANETA»

Lendik ere zerbait idatzia dugun arren, Elzo-Azpiatzutar Joxe, Erreteriko irakasle gaztearen azarnak dakazkigu, batezere gaztediarentzat eredu bezela.

1894-9-13an jaio ta 1916an il zan, bere bizitzako ametsa izandako pianoko ikasketak burutu ondoren, Madrilen azterketak gainditurik.

Bere naia lortu zuanerako bizia amaitu beraz. Mundualdi laburra berea, baiña emankorra benetan, batezere Erreterin irakasle igaro zizkigun bi urte oietan.

Gazte onen zenbait olerki irakurri ondoren, bereala sortu zitzaigun berau nor ote zan jakinaia eta ez giñan gutxi arritu, ogeitabi urterekin il zala jakitean, besterik uste baigendun, elduagoarenak ziruditen adibidez.

Lenengo bere argitaraturiko lanak biltzeari ekin genion eta lan au bukatu ondoren, bere berri zerbait jakitea izan zan gure naia eta ortarako, beti bezela gure adiskide ta aldizkari ontako lankide zan Bittor Idiazabal (G. B.) zanarengana jo genduan eta onek beste bein, jarri giñun bide zuzenean.

Berak zerbait ezagutu bazuan ere, geiago ezagutu zuten beste zenbaitengana eraman giñun. Elzoren ikasle izandako guztiak, beren irakasle izandakoaren gorespenak egiten ez dira aspertzen.

Beti bere ikasleekin batean ibiltzen zala jolas-aldietan, pelotan, fubolean eta beste edozertan, baiña beraiekin batean beti, ta ori garai artarako gauz aundia izaki, gutxi bai-ziran ikasleekin jolasten zuten irakasleak.

Baiña bazitun bere arrazoiak Elzok ortarako. Mujika jaunari idatzi zion eskutitz batean irakur genezake, euren artean euskeraz itzegin zezaten ain zuzen.

Euskerak edozertarako balio duala ta edozertan erabilli bear dala adierazteko elegia. Geroztik izan ditugun irakasleak alako arreta izan bazuten, gaur dagon baiño biziago egongo zan gure mintzaira gaixoa.

Ori eskol-umeen artean eta elduxeagoak ziranekin ere izan giñun arremanak, eta aiengandik ere antzeko berriak jaso genitun, musika erakusten ziela, abesti alaiak abesten ere bai, Valdesen meza abesten ere berarekin ikasi zutela, ta oso ondo abestu zutela, egillearen ustez beste iñon ez-bezela, ta abar...

Baiña bere gora-berak ere izana izan bear zigun, zenbait «integristarekin», bateko neskatxak korura eramaten zitulako, besteko elizarakoak etziran abestiak ere erakusten zizkielako ta

abar, baiña aiek pozik, maixu berriarekin ibiltzeagatik, ain atsegiña omen zan eta ain abesti politik erakusten, joango etziran ba korura? Bai orixe, pozik gaiñera.

Orra or, ogeitabi urteko mutiko bat, irakasle maillan, pianoko ikasketak burutua, gaztediaren laguna, elizan eta kalean bere abestiak aoan zituztela...

Ez da or bukatzen Elzoren ekintza, ezta gutxiagorik ere. Bere bizitza labur bezain emankorreetan, olerkiak egiteko ere astia aurkitzen zigun, gazte jator onek.

Gorago esan dugunez, bere olerkiak izan ziran gure esnagarri eta auetxek dirala uste dugu, egin zituan gauz guztietan arrigarrinenak. Ogeitamar bat olerki sail eta beste zortzi izkirimiri dira argitaratuak, geienak Erreterin irakasle zegon garaikoak, baiña badira berau il ondoren argitaratuak ere.

Gure iritzi apalean, badaude oso olerki gozo, samur eta atsegiñak batezere «Ume-zurtza», «Eri baten negarra», «Nere maitea», «Zuri», «Ume-zurtzaren negarra» ta beste zenbait, beste iñorenei zorrik gabeak dirala esango genduke.

Garai artan arrakasta aundia zuten olerki ta ipuiak, sariketak izaten ziran eta aieten sarituak eta aipamen goragarria jasotzen zutenak beintzat oso aintzat artuak ziran, euskal-literaturan. Eta idazle onen lanak alaxe izan ziran.

Izkirimiri edo ipuietan ere, badaude oso politik, batezere «Ursoa ta Mitxel», «Noiz Amatxo» ta guztien gainetik, «Aitzpeko Lorea». Onek badauko antzerki batentzat gaia, laburra dalarik ain da mamitsua, aterako dugu zerbait.

Bi gazte maitaleren arteko arazoekin eztijario asia izanik, drama gogor baten ondoren, leiza-zulo betean bukatzen dute neska-mutillen gorputzak.

Pentsa nolakoa izango zan olerkari onen arrakasta eta nolako erakarpena zuten bere lanak, Usandizaga donostiar musikalaria gaztea il-dorengo alean, beste ainbeste ta ainbeste idazlanetatik, beronena izan zan il-agiriaren ondoren lenengo azaldu zan lana.

Besteak-beste, batasun zale purrkatua zala esatera ere beartuak gaude, bere lanak irakurri ondoren. Lan oietan zear ikusi genezake, nola erabiltzen dizkigun alde guztietako euskal-itzak, bai bizkaitarrak, bai esiz aruzkoak.

Eta ogeitabi urte besterik etzitula il zanean. Jainkoak bakarrik daki, beste urte batzuetan idazten jarraitu izan bazigun.